

## **Adierazpen Instituzionala**

### **BIODIBERTSITATEA SALBA DEZAGUN TOKIAN TOKITIK HASITA**

Biodibertsitatea – Lurrean dugun bizitza sarea- funtsezkoa da gizakiaren ongizatearen kalitaterako, eta elementu erabakigarria gure dimentsio sozial, ekonomikoa eta espiritualari eusteko. Bere garaian, 2010erako gainbeherako joera gelditzeko helburuarekin konpromiso politikoak maila guztietan sinatu baziren ere, adituek diotenez biodibertsitateak gainbehera jarraitzen du. Halaber, joera hori geldiarazteko tokian tokiko ekintzak giltzarritzat hartzeko akordio zabala dago. Eta, horregatik,

**Behean sinatzen dugunok, Eskoriatzako herriak demokratikoki aukeratutako ordezkariak garenez, eta udalbatzaren izenean, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:**

**Hirigintza planifikatzerakoan** kontuan hartu beharreko alderdi erabakigarrien artean biodibertsitatearen zainketa sartzea; bereziki, ekosistema eta espezie ahulen (bertako basoak, errekek...) eta korridore ekologikoen babesa.

**Babestutako natura-gune berriak tokian toki** sortzearen alde egitea horiek duten natura balioengatik. Ahal den guztian, horrelako natura-guneak erosi eta **herri-ondasun bihurtzeko** konpromisoa hartzen dugu, gune horien babesa bi aldiz bermatuta egon dadin.

Biodibertsitatearen babesa **irizpidetzat hartzea produktuak erosi edo zerbitzuak kontratatzerakoan.**

**Gune berdeak** biodibertsitatearen **babeserako irizpideekin kudeatzea.**

**Herritarrak informatu eta sentsibilizatzea** eta biodibertsitatearen babesarekin lotutako ekintzak sustatzea.

Eskoriatza, 2010eko apirilaren 28a.

Sinatzaileak: Pedro Lasagabaster, Dorleta Lezeta, Edorta Barandiaran, Ander Agiriano, Leire Okaranza, Aitor Urrutia, Begoña Eraña, Maider Otamendi, Karmelo Lezeta, Iñaki Pierrugues eta Juan Luis Merino.